

KULTURA BATZORDEAREN PLANGINTZARAKO OINARRIAK

Dokumentu honetan, lehenbiziko saioan jaso genituen iritziak kontuan hartuta egindako elaborazio lana jaso dugu. Proposamen bat da eta 2. saioan aztertuko dugunez, erabat aldatu daiteke.

BALIOAK

Atal honetan, Kultura Batzordearen plangintzak kontuan izan beharko lituzkeen 4 balio edo printzipio idatzi ditugu. Lehenbiziko saioan jasotako iritziekin osatu ditugu. Balio edo printzipio hauek gure plangintzari nortasuna emango diote, eta aurrerago proposatuko diren jardueri txapela jarriko diete.

Berezko ezaugarriei lotua

Historian zehar etengabeko garapena izan duen herria dugu Bergara, hasi baserriatik, industriatik segi eta merkataritza jarduneraino. Herri garrantzitsua izan den seinale dira, baita ere, herrian dauzkagun etxe, jauregi, dorretxe eta eraikin erlijioso ugariak; baita maila handiko ikastetxeak ere. Gure historiaren parte dira horiek guztiak, gure berezko ezaugarri bihurtzeraino. Guzti hori eta beste hainbat elementu, hala nola, kaleak, jaiak, azokak, gastronomia eta euskara, Bergarako eta Euskal Herriko bizimoduaren isla dira, kultura propio bat duen herriaren isla, bere ezaugarri zehatzekin. Batzordearen kultur plangintzan Bergarak berezkoak dituen ezaugarri horiek kontuan hartuko ditugu, berezi eta desberdin egiten duten ezaugarriak baitira.

Euskara

Euskaraz egin dugu gure historia, gure ibilbidea eta gure kulturagintza, eta Bergarak euskalduna izaten jarrai dezan nahi dugu. Herriko gainerako hizkuntzekin elkarbizi den herri eta kultura euskalduna nahi dugu. Horrela izan da gaur egun arte ere, euskarak eta euskal kulturagintzak iraun badu garai berrietara egokitzen jakin duelako izan da, egoera zailak ere pasa dituen arren. Batzordearen kultur plangintzan euskara eta euskal kulturagintza izango dira oinarri, euskal kulturagintzaren transmisioa bermatzeko bideak jorratuko ditugu, eta beste hizkuntza eta kulturak ezagutu eta elkarbanatzeko irekitasunez jokatu dugu.

Berrikuntza

Kultura, bizimodua, identitatea... ez dira zerbait estatikoak, etengabe aldatzen doazen zerbait baizik. Bergarako kulturagintza, herria bera bezala, aldatzen joan da, berritzen. Garai bakoitzean egokitzen jakin du, eboluzionatzen. Bergarako kulturagintzak, beraz, berritzailea izaten jarraitu behar du denboran zehar irautea nahi badugu. Berrikuntzak egin beharko dira bai edukietan eta ekintzetan, bai promozio eta zabalkunde moduetan, beste kulturetako elementuak eta jarduerak ere txertatu, edota diziplinak nahasi. Hau da, irekitasunez jokatu lortuko dugu berrikuntzak identifikatu eta berezko ezaugarriak galdu gabe integrazio egoki bat egitea.

Elkarlana eta gertutasuna

Kultur talde eta sortzaile ugari dago herrian, herritarrengandik gertu daudenak eta herritarrez osatuta daudenak. Herritarren beharretara eta nahietara moldatuko den kulturgintza kritikoa behar dugu, euren beharrak ezagutu eta aintzat hartuko dituen, baina ikuspegi kritikoarekin. Azken finean horrek ahalbidetuko baitu herritarrek kultur bizitzan parte hartzea. Horretarako kultur taldeak gertuago, koordinatuago eta antolatuago nahi ditugu. Bidea elkarrekin egin nahi dugu, Bergarako kultur bizitza denon artean eraiki.

KULTURA BATZORDEAREN IPARRA

Etorkizuneko Bergara irudikatzen ariketa egin ondoren, guztiok norabide berean jarriko gaituen iparra proposatu dugu hemen. Hau da, Kultura Batzordeak izan beharko lukeen helburu nagusia jaso dugu, lehen saioan esandakoak kontuan izanda eta nolako Bergara nahi dugun kontuan izanda. Ez dugu Bergarako kulturaren iparra jaso, baizik eta Kultura Batzordearentzat egingarria izan daitekeen helburu bat:

Kultur eragileek elkarlanean kulturgintza parte hartzaile bat burutzea

Kultur eragile eta sortzaile ugari dago herrian, kultura bizirik dago. Guztien arteko elkarlanak kultur bizitza aberatsagoa ekarriko luke, eta Bergarako kulturgintzan erreferente izaten jarrai dezan lagunduko luke. Sortzaileak, alde batetik, garrantzitsuak dira, kulturak garapen bat izateko sortzaileak behar direlako, eta ondorioz herritarrek garapen pertsonala eta kolektiboa izango dutelako. Horrez gain, herritarrek kultur espresio ezberdinetan sortzen, ikusten edo laguntzen parte hartzen badute, sistema guzti horrek aurrera egitea ahalbidetzen dute. Kultur taldeek denon elkarlanerako aukerak eskaintzen dituzte, antolaketa eta sortze lanak egiten dituzte.

Elkarlana eta parte hartzea diogunean zera esan nahi dugu: kultur eragileen arteko elkarlana bai, baina baita herritarren parte hartzea bilatzeko ekimenak ere. Sortzaileen kulturgintza bai, baina baita herritarrek eta publikoak eskatzen duen kulturgintza ere. Betiko kulturgintza bai, eta baita diziplina eta espresio desberdinen parte hartzea ere.

Herriko kultur eragileak Bergarako berezko ezaugarriari lotuta daude, ekimen berritzaileak eta integritzaileak burutzen dituzte, eta euskaraz eta euskaratik egiten dituzte. Elkarlana eta auzolana ere betidanik egon izan da Bergaran, eta horretan hobetu, sakondu eta aurrerapausoak eman nahi ditugulako, gure iparrak elkarlana izango du oinarri.

LAN ILDOAK

Helburu nagusi horretara iristeko, hainbat lan ildo identifikatu ditugu, baina oraindik asko dago sakontzeko. Bigarren saioan honi ere helduko diogu.

1. ELKARLANA. Kultur taldeen arteko elkarlana bultzatu.

Jasotako hainbat ideia:

- Elkarren arteko informazioa trukatu.
- Koordinazioa.
- Agenda edo gida bateratua, web gunea...
- Zabalpena (difusioa). Komunikazio bide berriak.
- Talde berriak sortzeko bideak.
- Eskualdeko herriein elkarlana eta koordinazioa.
- Elkartzeko espazio erreferente bat.

2. HERRITARREN INPLIKAZIOA ESKAINTZAN. Eskaintza herritarren beharretara eta nahietara egokitu.

Jasotako hainbat ideia:

- Herritarrekin edota hartzaileekin elkarlan edota komunikazio bideak.
- Hartzaileak proiektuaren parte.
- Espazio berrietara zabaldu. Zentralizazioa murriztu. Auzoetara zabaldu.
- Gazte jendearen inplikazioa: gazteentzako eskaintza.
- Diziplina ezberdinen ezagutza (antzerkia, bertsoa, kantagintza, musika...)
- Berrikuntza eskaintzan.

3. HEZIKETA. Herritarren kultur ezagutza eta balioak bultzatu.

Jasotako hainbat ideia:

- Sortzaileak bultzatu.
- Transmisioa: herriko kulturgintza.
- Borondatezko lana eta auzolana mantendu edo bultzatu.
- Gazteak: taldeetan belaunaldi aldaketa eta erreleboa.
- Kultur eragileen ezagutza handitu: hartzaileak kontuan nola hartu, ekintzak nola antolatu...